



**ELKAR ULERTZERAKO MEMORANDUMA, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO (ESPAINIA) EUSKO JAURLARITZAREN ETA GIZA
ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIO BATUEN GOI KOMISARIOAREN
BULEGOAREN ARTEKOA, EUSKADIN GIZA ESKUBIDEAK SUSTATZEKO
HELBURUA DUENA**

Genevan, 2010eko urriaren 22an

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoaren izenean, goi-komisario Navanethem Pillay andreak

Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren izenean, Idoia Mendia Cuevak, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak, honako hau

ADIERAZI DUTE

Nazio Batuetan, Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (GENBGKren Bulegoa aurrerantzean) erakunde arduraduna da Nazio Batuen Gutunean ezarritako eskubideak nahiz giza eskubideei buruz legeek eta nazioarteko itunek ezarritakoak pertsona guztiek erabat bete ditzaten eta eskubide horiek babestu eta sustatzeko.

Eginkizun hori betetzeko, Goi Komisarioak gobernuetikiko elkarrizketa eta lankidetzak sustatzen du, eremu nazionalean giza eskubideen babesa indartzeko. Goi Komisarioak hainbat eragilerekin jarduten du elkarlanean –gobernuz kanpoko erakundeak, erakunde akademikoak eta sektore pribatua barne– giza eskubideei dagokienez ahalik eta konpromisorik zabalena lortzeko. Gainera, giza eskubideen arloko hezkuntza bultzatzeaz gain, prebentzioa sustatzen eta erronka berriak ezartzen ahalegintzen da hainbat gaitan.

GENBGKren Bulegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzak (Eusko Jaurlaritza aurrerantzean) adierazi dute bere borondatea giza eskubideen gaietan elkarlanean, koordinazioan osagarritasunaz jarduteko prest daudela eta horretarako 2008ko ekainaren 30ean Elkar Ulertzerako Memoranduma idatzi zuten.

Elkar Ulertzerako Memorandum hori ondo garatu denez gero eta nazioarteko harremanetan Espainiako Estatuak dituen ahalmenei erabat jarraituz, elkarrekin bideraturiko jarduerak berriro biztu nahi dituzte eta horregatik adostu dute betetzea honako

KLAUSULAK

LEHENEGOA.- Elkar Ulertzerako Memorandum hau sinatzen da giza eskubideen babesa eta sustapena indartzeko helburuz, hau sinatzen duten alderdiek elkarrekiko ekintzak garatzeko elkarri hartutako konpromisoari berriro indarberritzeko.

BIGARRENA.- Helburu hori lortzeko, helburu zehatz gisa honako hauek ezarriko dira:

- Eusko Jaurlaritzak GENBGKren Bulegora bidaltzea *Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze*ko bigarren Plana (2010-2011) aztertu eta ikuskatu dezan.
- GENBGKren Bulegoaren iradokiei jarraituz giza eskubideen gaietan interesgarriak diren lau argitalpen euskaraz eta gaztelaniaz itzuliko ditu Eusko Jaurlaritzak.
- GKEentzat eta bestelako erakundeentzat, Euskal Autonomia Erkidegokoak barne, zuzendutako prestakuntza-mintegi bat antolatzea giza eskubideen gaien inguruan baita, bizikidetzaren demokratikoari eta indarkeria deslegitimizatzeari buruz.
- Esleitu gabeko fondo bat giza eskubideen alorrean GENBGKren Bulegoaren jarduerak sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren ekintza zehatzak:

- Aldiro informazioa bidaltzea, betiere aurretik GENBGKren Bulegoak eskatu badu, Bizikidetzaren Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatze Planari buruz.
- Urtero prestakuntza-mintegi bat antolatzea giza eskubideen gaiei buruz, GKEentzat eta bestelako erakundeentzat, Euskal Autonomia Erkidegokoak barne.
- 50.000 € (ehun mila euro) liberatu eta GENBGKren Bulegoari ordaintzea, sailaren ohiko aurrekontuen kontura eta betiere aurrekontu-baliabideen arabera, Elkar Ulertzerako Memorandum honen helburuak garatzeko eta GENBGKren Bulegoaren berezko xedeetarako.

- *Trust Fund for Support Activities of OHCHR (HCA)* izenekoari ekarpen hori kuota bakar batean ordaintzea: 6161600934 banku-kontua, JP Morgan Chase AG, Grueneburgweg 2 – 60322 Frankfurt am Main – Germany, SWIFT: CHAS DE FX, IBAN: DE78 5011 0800 6161 6009 34. Bi alderdiek Elkar Ulertzerako Memorandum hau sinatu ondoren ordaindu beharko da 50.000 €ko kuota.

GENBGK Bulegoaren ekintza zehatzak:

- Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeke Plana (2010-2011) izeneko planari buruz iritziak eta gomendioak ematea.
- GENBGKren Bulegorako ponenteak edota nazioarteko adituak proposatzea parte hartu dezaten Eusko Jaurlaritzako antolaturiko prestakuntzako mintegi/tailer batean honako gai hauei buruz: bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeria deslegitimatzea. Ekitaldi horiek GKEak eta beste erakunde batzuk, Euskal Autonomia Erkidegokoak barne, ditu hartzaile.

HIRUGARRENA.- Memorandum honi jarraituz burutzen diren jardueretan erabiltzen diren funtsak egiaztatzeke agiriak ikuskatuko dira Nazio Batuen Erakundeak ezarritako arautegi, arau, politika eta prozedurekin bat etorriz. Halakorik eskatzen badio, GENBGKren Bulegoak Eusko Jaurlaritzari igor diezaioke Nazio Batuen deklarazio auditatuaren kopia bat. Deklarazio horiek, hain zuzen, Batzar Nagusiari igorritakoak dira.

LAUGARRENA.- Sinatzen dutenek lau pertsona izendatu dituzte, bi GENBGKren Bulegoaren izenean eta beste bi Eusko Jaurlaritzaren izenean, honako jarduketara hauek burutzeko:

- Egoki deritzen neurriak hartzea bai geroago elkarrekin burutu beharreko jarduerak planifikatu, proiektuak identifikatu, jarduerak koordinatu eta burutu diren ekitaldien antolamendurako eta funtzionamendurako jarraibideak ezartzeko.
- Zalantzak argitu, emaitzak aztertu eta Memordum honen garapenean agertu daitezkeen arazoei aurre egitea.

BOSGARRENA.- Memorandum honi jarraituz burutzen diren agiri, lankidetzaren tresna eta jarduera guztiek espresuki adierazi beharko dute harekin bat etorriz egin direla.


SEIGARRENA.- Memorandum hau sinatzen den unetik aplikatuko da eta 2010eko abenduaren 31ra arte izango du indarra. Ondoren, berritu ahal izango da, sinatzaileek asmo hori idatziz adierazten badute. Alabaina, lehenago bukatu ahalko da sinatzaileek hala adosten badute edo sinatzen dutenetako edozeinek iragartzen badu. Horretarako, lehenago, bi hilabete lehenago bukatu baino lehen idatziz jakinarazi

badu. Bi sinatzaileek, ados jarrita, Elkar Ulertzerako Memorandum hau aldatzeko erabakia har dezakete.

ZAZPIGARRENA.- Sinatzaileek ahal duten guztia egingo dute Elkar Ulertzerako Memorandum honen interpretazioaren edo aplikazioaren inguruan sor litekeen edozein desadostasun adiskidetasunez konpontzeko.


Agiri hau bi aletan eta ondorio bakar baterako sinatzen da ingelesez, gaztelania eta euskaraz. Baldin eta hura interpretatzeari buruz zalantzarik balego, ingelesezko bertsioak lehentasuna izango du.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen
Goi Komisarioaren Bulegoaren izenean



Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen
goi-komisarioa
Navanethem Pillay

Euskal Autonomia
Erkidegoaren izenean



Justizia eta Herri
Administrazioko sailburua
Idoia Mendia Cuevas

1. ERANSKINA:

Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzekeo Plana (2010-2011)

2. ERANSKINA:

2010eko aurrekontua

	2010. urtea
Norberaren aukerako fondoa (esleitu gabea), GENBGKren Bulegoari ordaindutakoa	50.000 €
Guztira	50.000 €